

ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA
2.0 KOMUNITATEA PROIEKTUA

HAUTAKETA PROZESUA, 2 LANGILE KONTRATATZEKO

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO LEHENDAKARITZAK 2014KO MAIATZAREN 27AN ONARTUTAKO OINARRIAK, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN ARGITARA.

Urola Kostako Udal Elkarteak 2 langile kontratatuko ditu “2.0 komunitatea” proiektua garatzeko, oinarri hauek arautzen duten hautaketa-prozesuaren bidez. Kontratuek 6 hilabeteko iraupena izango dute.

Urola Kostako Udal Elkarteak enplegua sustatzeko toki ekintzetarako diru-laguntza eskuratu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskutik (Diru-laguntza deialdia: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpena, 2013ko urriaren 17koa, EHAA 2013-10-18, espediente zenbakia R/13-LPE-16-G). Proiektu horretan, besteak beste, enplegua sustatzeko ekintzak aurreikusten dira, hain zuzen ere oinarri hauek arautzen duten hautaketa prozesuaren bidez gauzatuko direnak.

Enplegua sustatzeko deialdi honen xedea da laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna handitzea aldi baterako lan-esperientzien bidez, pertsona horien kualifikazioa eta/edo gaitasun pertsonalak eta motibazioa handitzeko. Hori dela eta, 2 lanpostuetako bat izango da RGI/DBE (diru-sarrerak bermatzeko errentaren) jasotzaileentzat eta bestea oinarri hauetako 1.2.2 atalean zehaztutako gizataldeentzat.

Hautaketa-prozesua eta izendapenak burutuko dira aipatutako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren deialdiak ezarritako irizpideen argitara.

OINARRIAK

LAN-ESKAINZA

Lanpostuak: 2 lanpostu

Eginkizunak:

Lanpostu horien eginkizun nagusia da “2.0 komunitatea” proiektua garatzea. Proiektu horrek honako helburu/jarduerak aurreikusten ditu:

- Udal Elkartearen komunikazio digitalaren estrategiaren azterketa.
- Udal Elkartearen komunikazio digitalen azterketa eta balorazioa.
- Udal Elkartearen “komunitatea 2.0” komunikazio-estrategiaren definizioa eta garapena.
- Prestakuntza eta aholkularitza ematea Udal Elkarteako sailei 2.0 komunikazioan, baliabideetan eta tresnen erabilpenean.
- Prestakuntza eta aholkularitza 2.0 komunikazioaren esparruan eskualdeko enpresei eta udal erakundeei (jardunaldiak, ikastaroak, tailerrak...).

Kontratuaren ezaugarriak:

- Iraupena: 6 hilabete (luzapenik gabe)
- Lanaldia: osoa.
- Lan-harremana: bitarteko funtzionarioa
- Lan-hitzarmena: Udal Elkarteko langileen lan-hitzarmena, ordainsarien maila 12,5

HAUTAKETA PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

1. Parte hartzeko baldintzak

1.1. Baldintza orokorrak

Onartua izan eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ondorengo baldintza orokor hauek bete behar dituzte hautagaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek 21 urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanik bere kontura bizi badira.
Halaber, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan egoiliar gisa dauden pertsona atzerritarrek, nahiz eta aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzak bete ez. Horietako bat hautatua izango balitz, kontratua gauzatu aurretik egiaztatu egin beharko luke kontratuaren objektu den jarduera burutzeko behar duen administrazio-baimena baduela.
- b) 16 urte betetik izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.
- c) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta egotea alta egoeran, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epe-mugaren aurretik.
- d) Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian erroldatuta egotea, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epe-mugaren aurretik.
- e) Honako arlo hauetako goi zikloko edo unibertsitateko erdi edo goi mailako tituluaren jabe izatea (edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea): Kazetaritza; Komunikazioa; Ikus-entzunezko Komunikazioa; Marketinga; Publizitatea; Web eta multimedia aplikazioen garapena.
- f) Hirugarren hizkuntza eskakizunaren titulu edo ziurtagiriaren jabe izatea (edo C1 mailaren baliokidea; ikus baliokidetasunak honako Dekretuan: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena (azaroaren 15eko EHAA, 219 zk.).
- g) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko dute kontratua egiteko proposamena jasotako izangaiek, eskatzen zaien unean.
- h) Diziplina-espedita bidez administrazio publikoen, organo konstituzionalen edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzura aritzeko bananduta ez egotea; halaber, epei bidez desgaitze absolutu edo berezirik ez izatea, lanpostu edo kargu publikoan aritzeko, funtzionarioen eskalan sartzeko edo, lan itunpeko langileen kasuan, desgaitutako lanpostuaren antzeko eginkizun edo jarduerak burutzeko. Beste estatu bateko naziotasuna izanez gero,

desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea; halaber, bere estatuan enplegu publikoa lortzea galarazten dion diziplina zigor edo antzekorik ez izatea.

- i) Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik ez izatea, dagozkion lege-xedapenek ezarritakoaren argitara.
- j) B1 gida-baimena izatea.

1.2. Baldintza zehatzak

Hautagai gisa onartua izateko, goiko baldintza orokorrak betetzeaz gain, honako baldintza hauetako bat bete behar da:

1.2.1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) jasotzailea izatea.

1.2.2. Edo, gizatalde hauetako batekoa izatea:

- 16 eta 35 urte bitarteko pertsonak.
- 45 urte baino gehiago izan eta lan-eskatzaille moduan gutxienez 6 hilabete daramatzaten pertsonak.
- Denbora luzean lanik gabe dauden pertsonak (Lanbiden gutxienez 12 hilabetez izena emanda izan diren pertsonak, kontratazioa egin aurreko 18 hiletan)
- Gizarte-bazterketaren arriskuan dauden pertsonak:
 - Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonaren bizikidetz-unitateko pertsonak
 - 18 eta 30 urte bitarteko gazteak, adingabekoak babesteko instituzioetan izan direnak.
 - Drogamendekotasuneko arazoak eta beste mendekotasun-asaldurak dituzten pertsonak, errehabilitazioko edo gizarteratzeko prozesuan daudenak.
 - Espetxeratutako dauden pertsonak –baldin eta haien espetxeratze-egoerak enpleguren bat izateko aukera ematen badie eta haien lan-harremana ez bada uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuko 1. artikulua arautzen duen lan-harreman bereziaren baitakoa–, baldintzapean aske daudenak eta preso ohiak.
 - Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak, adingabekoen zigor-erantzukizuna arautzekoak, duen aplikazio-eremuan sartzen diren adingabeko barneratuak, baldin eta enplegu bat eskuratzeko moduan badaude eta haien lan-harremana ez bada adierazitako legearen erregelamenduko–uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduko– 53.4 artikulua adierazten duen lan-harreman bereziaren barruan sartzen, zaintzapeko askatasun-egoeran daudenak eta barneratze-egoeran izandakoak.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko agintari eskudunek baimendutako alojamendu alternatiboko zentroetan izandako pertsonak.
- Ezintasunak dituzten pertsonak.
- Familia-ardurak dituzten emakumeak eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak (familia-ardurak dituzten emakumeak izango dira haien kargura ezkontidea eta/edo 26 urtetik beherako seme-alabak, adin horretatik gorako pertsona ezinduak edo harreran hartutako adingabeak dituztenak).

2. Izena non eta nola eman eta epea

Hautaketa prozesuan parte hartzeko honakoak aurkeztu behar dira: eskabidea (l. eranskina), behar bezala beteta, eta oinarri hauen 6. atalean zehazten diren dokumentuak.

Eskabideak aurkeztu behar dira honako helbidean:

Urola Kostako Udal Elkarte, Sarrera Erregistroa
Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz.

Epea: eskabidea aurkezteko epea hasiko da 2014ko maiatzaren 27an eta amaituko da 2014ko ekainaren 9an, 15:00etan. Eskabideak aurkezteko bulego-ordutegia: 8:00-15:00.

Argibideak jasotzeko jarri harremanetan Urola Kostako Udal Elkartearekin: Tel. 943890808; idazkaritza@urolakosta.org

3. Onartuen eta baztertuen zerrendak

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udal Elkarteak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda emango du argitara, Udal Elkartearen iragarkien taulan eta webgunean (www.urolakosta.org) eta baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu. Baztertutako pertsonak egutegiko 5 eguneko epea izango dute akats edo okerra zuzentzeko. Jarraian, Udal Elkarteak behin betiko zerrenda emango du argitara.

4. Hautaketa prozesua

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu: alde batetik, elkarrizketa eta, bestetik, merezimenduen lehiaketa.

Nolanahi ere den, proiektuaren eskakizun teknikoak eta bete nahi diren lanpostuen profilak eskatzen dituen konpetentziak kontuan hartuta, Epaimahaiak erabaki ahal izango du hautagaiei ariketa teoriko edo eta praktikoren bat egitea. Ariketa teoriko edo eta praktikoren bat egitea erabakitzen bada, honako oinarri hauek hartuko dira kontuan:

- Ariketa horrek (horiek) hautaketa-prozesu osoan lor litekeen puntu kopuruaren %60ko balioa izango du gehenez ere.
- Ariketa(k) derrigorrezko eta baztertzailerik izango da.
- Ariketa merezimenduen lehiaketaren aurretik egingo da.
- Epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketa eta elkarrizketak egun berean egitea. Horrela egiten baldin bada, bigarrena (elkarrizketa) kalifikatuko da lehenengoa (ariketa) kalifikatu ondoren eta ez zaie elkarrizketa kalifikatuko lehenengo ariketa gainditzen ez duten izangaiak.

4.1. Elkarrizketa

Elkarrizketa: izangaiak lanpostuaren eskakizun eta eginkizunetara zer-nola egokitzen diren baloratuko da elkarrizketaren bidez. Elkarrizketak 15 puntu balioko ditu eta gainditzeko 7,5 puntu eskuratu beharko dira gutxienez. Ariketa hau derrigorrezkoa eta baztertzailerik da.

Elkarrizketa egiteko deialdia (egun, ordu eta lekua) Udal Elkartearen webgunean emango da jakitera (deialdi bakarra egingo da).

4.2. Merezimenduen lehiaketa

Merezimenduen lehiaketa egingo da elkarrizketak egin eta kalifikatu ondoren. Epaimahaiak baloratuko ditu elkarrizketa gainditzen duten izangaien merezimenduak.

Merezimenduen lehiaketan gehienez ere 20 puntu lortu ahal izango dira. Merezimendu hauek baloratuko dira:

- 4.2.1. Lan-esperientzia, deialdi honen helburu den “2.0 komunitatea” proiektuaren eginkizunekin zerikusi zuzena duten lanpostuetan (on-line komunitateak kudeatzen, on-line komunikaziorako estrategia eta planak diseinatu eta bideratzen, on-line komunitateak kudeatzeko tresnak garatzen...): hilabete oso bakoitzeko 0,25 puntu. Atal honetan gehienez ere 8 puntu eskuratu ahal izango dira.
- 4.2.2. Lan-esperientzia, on-line komunitateak kudeatzeko eginkizunekin lotutako esparruetan (webgune, 2.0 tresna eta on-line tresnen programazioa eta diseinua; e-commerce; arlo horietako prestakuntza ematea...): hilabete oso bakoitzeko 0,15 puntu. Atal honetan gehienez ere 6 puntu eskuratu ahal izango dira.

Lanpostu batek aurreko irizpide horiekiko zer-nolako antza duen Epaimahaiak aztertu eta erabakiko du, eta egoki iritzitako zuzenketa faktoreak aplikatuko ditu, bai hilabete bakoitzeko eman beharreko puntu kopuruari dagokionez, bai lor litekeen gehienezko kopuruari dagokionez.

- 4.2.3. Prestakuntza: deialdi honetako hasierako “lan-eskaintza” atalean zehaztuta dauden eginkizunekin lotuta dauden edo zerikusia duten prestakuntza osagarri, titulu akademiko, jardunaldi, ikastaro eta antzekoak. Gehienez 6 puntu lortu ahal izango dira, ondoren zehazten diren atal-muga hauekin:
 - Puntu 1, 250 ordu edo gehiagoko ikastaro bakoitzeko (gehienez 2 puntu).
 - 0,5 puntu, 100-249 ordu arteko ikastaro bakoitzeko (gehienez 2 puntu).
 - 0,25 puntu, 20-99 ordu arteko ikastaro, jardunaldi edo baliokide bakoitzeko (gehienez puntu 1).
 - Ingelesa, C maila edo goragokoa, puntu 1.

Atal bakoitzean egiaztatutako ikastaro, gradu ondo, titulu edo baliokideek atal horretarako ezarritako gehienezko muga gainditzen badute, hurrengo atalean balioetsiko dira.

4.3. Merezimenduak nola egiaztatatu

Ez da balioetsiko eskabidean zehazten ez den eta behar bezala egiaztatzen ez den merezimendurik.

Lan-esperientzia egiaztatuzko aurkeztu behar dira batetik, bizitza laborala eta, bestetik, enpresako ziurtagiriak. Enpresa-ziurtagiriek argi eta garbi agertu behar dituzte honako datuak: lanpostuaren izena, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta burututako eginkizunak. Horrela ez bada, Epaimahaiak erabakiko du balioetsi ala ez eta nola balioetsi. Enpresa-ziurtagiririk izan ezean, lan kontratuaren kopia ere baliokoa izango da, lanpostuaren eginkizunak zehazten baditu.

Autonomo gisa izandako lan-esperientzia egiaztatzeko honakoak aurkeztuko dira: lan-bizitza, autonomo altaren egiaztagiria, dagokion epigrafearekin, egindako zerbitzuen egiaztagiriak (fakturak, enpresa ziurtagiriak...).

Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztutako dokumentuek esperientziaren funtzio eta eginkizunak eta epeak ez badituzte argi eta garbi zehazten, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.

Prestakuntza egiaztatzeko agiriek argi eta garbi adierazi behar dituzte prestakuntza-ikastaroaren izenburua, edukia eta iraupena. Horrela ez baldin bada, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.

Nolanahi ere den, beharrezkoa dela irizten badio, Epaimahaiak aukera izango du lan-esperientzia edo eta prestakuntza egiaztatzeko dokumentu osagarriak eskatzeko edo egiaztapen lanak egiteko.

4.4. Emaitzak

Epaimahaiak elkarrizketaren eta merezimenduen lehiaketaren behin-behineko emaitzak onartu ondoren argitaratu egingo ditu eta izangaiek egutegiko 5 eguneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztu behar dira, Udal Elkarteko sarrera erregistroan (Urdaneta bidea 6, Zarautz).

Epe hori igaro ondoren Epaimahaiak behin betiko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu. Erreklamaziorik ez bada behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe.

5. Azken emaitza eta izendatzeko proposamena

Elkarrizketaren eta merezimenduen lehiaketako emaitzak batu ostean, Epaimahaiak behin-behineko azken emaitzak onartu eta argitara emango ditu eta egutegiko 5 eguneko epea emango du erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik ez bada, besterik gabe, behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira. Erreklamaziorik baldin bada, aztertu eta dagokion erabakia hartuko du Epaimahaiak.

Jarraian, Epaimahaiak behin betiko emaitzak eta lehen bi hautagaiak bitarteko funtzionario izendatzeko proposamena helaraziko dizkio Udal Elkarteko lehendakariari.

Halaber, gainerako hautagaiekin lan-poltsa eratzeko proposamena egingo dio (puntu gehien dituenetik gutxien dituenera), programak irauten duen bitartean gerta litezkeen hutsunak betetzeko.

Dena dela, bitarteko funtzionarioen izendapenak egin aurretik, proposatutako hautagaiaren egoera egiaztatuko da, hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko baldintzak betetzen jarraitzen duela bermatzeko. Hautagaiak ez baditu une horretan baldintzak horiek betetzen, baztertuta geldituko da eta zerrendako hurrengoa izendatuko da (betiere baldintzak betetzen baditu).

6. Aurkeztu behar diren dokumentu eta datuak

Hautaketa prozesuan parte hartzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskabidea, behar bezala beteta, oinarri hauetako I. eranskineko ereduaren arabera egina.
- NANren fotokopia.
- Curricula.
- Udaleko errolda eta bizikidetasun agiria (gehienez ere hilabete bat lehenagokoa).
- Deialdian parte hartzeko eskatutako ikasketa tituluaren fotokopia.
- EGA, 3. hizkuntza eskakizun edo baliokide den tituluaren fotokopia.
- B1 gida-baimenaren fotokopia.

Parte hartzeko baldintza zehatzak egiaztatzea:

Oinarri hauetako 1.1 ataleko baldintza batzuk eta 1.2 ataleko baldintzak betetzen direla Lanbiden egiaztatuko du Udal Elkarteak, bere Orientazio Zerbitzuaren bidez, eta, beraz, ez da dokumenturik aurkeztu behar. Horretarako, eskatzaileak eskabidean datu horiek egiaztatzeko baimena eman behar du, dagokion laukia markatuta. Horrela egiten ez badu dokumentu bidez egiaztatu behar dituzte egoera horiek.

Merezimenduen lehiaketan baloratzeko dokumentuak:

Eskabidearekin batera merezimenduen lehiaketan baloratzeko dokumentu eta egiaztagiria aurkeztu behar dira, hala nola:

- Bizitza laborala eta lan esperientzia egiaztatzeko enpresa-ziurtagiriak eta dokumentuak.
- Prestakuntza egiaztatzeko ziurtagiriak.

Aurkeztutako agiriak fotokopia soilak izan daitezke. Nolanahi ere den, fotokopia soilak aurkeztuz gero, izendatu aurretik fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dira.

7. Epaimahaia

Honela osatuko da Epaimahaia:

Mahaiburu: Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enpleguko arduraduna
Epaimahaikide:

Udal Elkarteko Orientazio Zerbitzuko teknikaria

Udal Elkarteko Orientazio Enpresa arloko teknikaria

Udal Elkarteko Euskara eta Komunikazio Zerbitzuko arduraduna

Idazkari: Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzailea

Epaimahaiaren eginkizuna izango da hautaketa-prozesua bideratzea, oinarriotan ezarritakoaren arabera. Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauek interpretatzeko eta oinarriotan zehaztu gabeko alderdiak erabakitze, oinarrietan zehazten denarekin bat etorritik. Epaimahaiaren eskariz, Epaimahaiaren parte hartu ahal izango dute deitutako lanpostuaren eginkizunetan adituak diren teknikariek, betiere aholkulari gisa eta hautaketa-prozesuko atal eta eginkizun zehatzak burutzeko.

8. Deialdiaren eta hautaketa-prozesuaren inguruko informazioa

Lan-eskaintza iragarriko da bide hauek erabiliz: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eta Udal Elkartearen webgunea.

Hautaketa-prozesu honen inguruko komunikazio eta jakinarazpenak (onartu eta baztertuen zerrendak, ariketen deialdiak, emaitzak...) Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean emango dira argitara: www.urolakosta.org (lan eskaintzak atala).

9. Datu pertsonalen babesa

Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa den abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautzen duena betetzeko, Urola Kostako Udal Elkarteak deialdi honetan arautzen diren laguntza-eskaeren bidez eskuratzen dituen datu pertsonalak jasoko ditu "giza baliabideak" izeneko fitxategian. Fitxategi hori arautzen du Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen 2010eko otsailaren 4ko akordioak (Urola Kostako Udal Elkartearen datu pertsonalen fitxategiak arautzeko akordioak).

Datuak laga ahal izango zaizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, oinarri hauek arautzen dituzten kontratazioak egiteko Udal Elkarteak erakunde horren eskutik jasotako diru-laguntza zuritzeko beharrezkoa den neurrian.

Horrez gain, pertsona interesdunek datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, honako helbidera idatzia bidalita: Urola kostako Udal Elkarte, Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz.

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA
2014-05-27

ESKABIDEA

Izen-abizenak		NAN zk.
Helbidea		Herria
Tel.	Tel. mugikorra	E-maila

Honakoa **ADIERAZTEN DUT**:

- Urola Kostako Udal Elkarteak "2.0 komunitatea" proiektua garatzeko bitarteko bi funtzionario izendatzeko deitu duen lehiaketa arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen ditut.
- Lehiaketan parte hartu ahal izateko tituluaren jabe naiz.
- Eskabide honi erantsita doaz lehiaketan baloratzeko merituen agirien fotokopiak (eskabidearen atzealdean daude adierazita meritua).
- Oinarriek ezarritako baldintza guzti-guztiak betetzen ditut.
- Oinarrietako 1.2 ataleko baldintza zehatz hau betetzen dut (markatu laukia):

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) jasotzailea.
- 35 urte edo gutxiago dituen pertsona.
- 45 urte baino gehiago izanik lan-eskatzaille moduan gutxienez 6 hilabete daramatzen pertsona.
- Denbora luzean lanik gabe dagoen pertsona.
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonaren bizikidetzaren unitatekoa.
- Ezintasunak dituzten pertsonak.
- Familia-ardurak dituzten emakumeak eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak.
- Besteren bat (adierazi zein):

- Udal Elkarteari baimena ematen diot oinarrietako 1.1 ataleko baldintza batzuk eta 1.2 ataleko baldintzak betetzen direla Lanbiden egiaztatzeko.
- Eskabide honen bidez jasotako datu pertsonalak jasotzeko adostasuna adierazi eta baimena ematen dut datu horiek era automatikoan tratatu eta Udal Elkarteak araubideak ezarritako eran sortutako fitxategietan txertatzeko, deialdiaren bederatzigarren oinarriak ezartzen duenaren argitara.

Hori dela eta, honakoa **ESKATZEN DIZUT**: Eskabide hau ontzat hartu eta lehiaketa horretan parte hartzea.

.....(e)n, 2014ko(a)ren (e)an
Sinadura

Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria
Urdaneta bidea 6, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa).

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babestekoak, xedatzen duena betetzeko, aditzaera ematen dizugu inprimaki honetan adierazten dituzun datuak Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoa den eta "giza baliabideak" izena duen fitxategian txertatuko ditugula eta erabiliko direla zure eskaria bideratzeko administrazio-jardunbideek ezarritako eran. Halaber, aditzaera ematen dizugu sarbide, zuzenketa, ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzatzeko honako harrera zerbitzura jo dezakezula: Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz (Gipuzkoa).

ESKABIDEARI ERANTSITAKO AGIRIAK

Honako agiriak eransten dizkiot eskabideari (markatu laukia):

- NANren fotokopia.
- Curriculuma.
- Udaleko errolda eta bizikidetasun agiria.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako ikasketa tituluaren fotokopia.
- EGA, 3. hizkuntza eskakizun edo baliokide den tituluaren fotokopia.
- B1 gida-baimenaren fotokopia.

LEHIAKETAN BALORATZEKO MERITUAK

Lan esperientzia

Administrazioa /Enpresa	Lanpostua	Hasiera	Amaiera

Prestakuntza

Emalea (ikastegia, unibertsitatea...)	Ikastaroaren izenburua	Orduak